



2022ko FORMAKUNTZAK



ARRAPITZ SAREKO ELKARTEAK

Arrapitz federazioak laborantzaren garapenerako 19 elkarte biltzen ditu, Euskal Herriko laborariek plantan eman dituztenak, Euskal Herriko laborarien onerako.



ARRAPITZ

Haize berri 64120 IZURA
05 59 37 23 21
arrapitz@wanadoo.fr

**Egutegia hilabetero eguneratuta :
arrapitz.eus**

AFOGa, laborariek sortu elkarte bat da. Bakotxa bere etxaldearen kudeantza eta bizi proiektuan autonomoagoa izaiteko formakuntzak antolatzen ditu.



AFOG

Haize berri 64120 IZURA
05 24 34 80 10
afog.eh@wanadoo.fr

Formakuntzen egitarauak : afog.eus

B.L.E-k laborantza biologiko, autonomo, lekuko eta solidarioaren garatzeko lan egiten du, Iparraldean, sareak antolatuz, formakuntzaren bidez, entseguak eginez.



BIHARKO LURRAREN ELKARTEA

Haize berri 64120 IZURA
05 59 37 25 45
ble-arrapitz@wanadoo.fr

Formakuntzen egutegia : ble-civambio.eus

EHEE elkarteak etxean ekoizten duten laborariak defendatzen eta laguntzen ditu. IDOKI laborantza kalitate-hitzarmena eta haren sustapen kolektiboa ere kudeatzen ditu.




EUSKAL HERRIKO ETXE EKOIZLEEN ELKARTEA

Haize berri 64120 IZURA
05 59 37 23 97
apfpb@free.fr

**Xehetasun gehiago :
producteurs-fermiers-pays-basque.fr**

Iparraldean sagarnoa berriz egitea, hemengo sagar motak erabiliz, hona Euskal Herri barnealdeko talde ttipi batek 1990ean altxatu desafia; horretarako, Sagartzea elkarteak sortu zuten.



SAGARTZEA

Beltxu
64120 DONAIXTI
06 10 12 81 76

Trebatu elkarteak tresna desberdinak proposatzen ditu instalatu nahi duten proiektu eramaileak laguntzeko: bere proiektua zehazteko ibilbide bat etxaldeen ikastaroak eginez, trebatzea, formakuntzak,...




TREBATU

Haize berri 64120 IZURA
06 49 43 49 42
trebatu@outlook.com



Biozkarria elkarteak Pirinio Atlantikoetako 9 behi hazle biltzen ditu, laborantza biologikoan ari direnak, ostalaritza kolektiboari eta ohiko ostalaritzari kalitatezko haragi biologikoen proposatzeko..



Uhart Garaziko «Etxe Gasna» gazitegi kolektiboa gasnen ontzeko tresna da.



Buru Beltza elkarteak Manex Buru Beltza izeneko ardi hazle batzuk biltzen ditu, arrazaren zaintzeko eta sustatzeko, eta transhumantzia sistemen laguntzeko xedez.



Zalgizeko "Etxe Gazna, etxeko gasna egiten duten lekuko ekoizleak, Zalgizen dagoen Etxe Gazna kooperatibaren inguruan bildurik, beren gasnen ontzeko eta biltegian atxikitzeko.



Euskal Herriko Artzainak sortu da artzain soilen, gasna eta transhumantzia egiten duten artzainen, lekuko arrazen transhumantziaren, mendiko gasnaren eta artzainaren lanaren laguntzeko eta ezagutarazteko.



Garro Kooperatiboak 9 hektarea lur ustiatzen ditu baratzezaintzan, Lekorneko lurretan, barrazkiak pentzeetan eta berotuak ez diren neguetan ekoiziz, laborantza biologikoan.



EHKolektiboa laborantza biologikoan ari diren Euskal Herriko laborari batzuen sarea da, agroekologiaren inguruan antolatua, parte hartzeko aukera ematen duen zertifikazio tresna bat sorturik eta plantan emanik.



SOS Indartu egitura borondate oneko laguntzaileez osatua da; zailtasunetan diren laborariak laguntzen ditu, maila profesionalean eta pertsonalean.



Eztigar, 1996an Eztigar kooperatiba sortu zen sagar jusaren eta sagarnoaren egiteko..



Ezpeletako Biperra sindikatuaren eginkizuna da Jatorri Deitura Gerizatuaren kudeatzea eta gerizatzea, deituraren sustatzea, bere kideei kontseilu teknikoak eta kalitateari buruzko laguntza ekartzea.



Lurzaindia herri-aurrezki tresna kolektiboa da. Haren helburua: jatera ematen digun lurra ondatsun kolektibo bilaka dadin, hots, merkatu interes espekulatibotik atera dadin, laborariei instalatzeko eta atxikitzeko ahalarren emateko.



Irulegi Jatorri Deitura Kontrolatuaren kudeaketaz, defentsaz eta garapenaz arduratzen den sindikatu da. Mahastizainen laguntzeko eta Irulegiko arnoak publiko zabalari ezagutarazteko bidea ematen du

SAR HITZA

2021eko urte hondarrean, Frantziako laborantza ministeritzak, 10 urteetarik egiten duen etxaldean kondaketaren berri eman du. 100 000 etxalde gutiago hamarkada batez ! Frantzia metropolitanoan 389 000 etxalde zenbatuak dira.

Gure departamenduan ere 2100 etxalde desagertu dira 10 urtez, 9762 etxalde gelditzen zirelarik kondaketa bukatzean. Euskal Herriko datuak ere ildo beretik doatzi, milako bat etxalde desagertu da hamarkada batez... nolaz ez damutu pentsatzearekin 2 etxalde desagertzen direla astero !

Hala ere galtzea ehunekoan konparatzen bada beste eskualdeekin, ohartzen gira Ipar Euskal Herriko laborantzak hobeki iharduki duela.

Hau ez da kasualitate huts bat ! 50 urte hauetan, laborariek jakin izan dute hemen norberak bere etxaldea egunerokoan kudeatzen familia biziarazteko bainan ere taldeka gogoetatzen, beren beharri erantzunen zituzten tresnak sortzen, laborantza molde iraunkorrak zaintzen, garatzen eta hobetzen, mendiko laborantza mantentzen, transmizioa lantzen. Herritar-konsumitzaileen joerak ere bat egin du lekuko eta kalitatezko ekoizpenen alde, bide beretik laborari eta biztanleen arteko kurutzatzeak biderkatuz.

Gaur, ahoan bilorik gabe, erran dezakegu Arrapitz sarearen baitan, 30 urtez, sortu, hazi eta garatu diren elkarte guzien eguneroko lanak etxaldean desagertzearen kontrako erresistentzia eragina izan duela.

Ondoko hamarkadari begira jarriz, Arrapitzeko elkarteek, lurralde honetan laborantza iraunkorraren alde ari diren beste elkarte eta egitura ezberdinekin esku-esku lanean segituko dute etxaldean kopuruaren ttipitzeari eginahala arrasta emanaz.

Laborarien arteko kurutzatzeak, gogoetak, formakuntzak parada onak dira bakoitzak eta kolektiboki geroaren giderrak hartzeko eta azkartzeko. Hain xuxen, eskuen artean duzuen katalogo honek formakuntza andana zabala eskaintzen dizue.

Nahiz eta 2021 urte bukaerako formakuntza batzuetan parte hartzea apalagoa izan, covid izurriteak ez ditu laborariak eta biharko laborari gaiak trabatu proposatuak ziren formakuntzetan parte hartzeko. 2022an, laborarien formakuntzak laguntzen dituen VIVEA fondoaren erreforma izanen da. Dena eginen dugu aldaketa hauek lagun ditzaten formakuntzen antolaketarako baldintzak hobetzen, beti ere urrats administratiboak ahal bezainbat erretuz parte hartzaileentzat.

Katalogo honen osatzeko, urtean zehar, ikastaldi-formakuntza-tailer berezietan buruzko datuak erregularki zehaztuak eta eguneratuak izanen dira www.arrapitz.eus webgunean.

Ez dudatu, izena eman, oharrak egin... denen artean baitugu Ipar Euskal Herriko laborantzaren aldeko dinamika eta engaiamendua mantenduko !

" Atzotik ikasi, egunekoa bizitu eta biharkoan sinetsi "

Arrapitzeko bulegoa

AURKIBIDEA

PLANTATZEA o.6

- Laborantza mundua ezagutu, agerraldia
- Laborantza Sortzaile Ibilbidea
- Formatzen segitu beren proiektua entseatuz
- Biharko laborarien sustengatzeko tutore funtzioa segurtatu
- Norbere plantatzea pentsatu DJA dozierra egin aintzin

ZURE LANBIDEA BIZIAN ZEHAR

1. KONDUAK, KUDEANTZA, PAC & FISKALITATEA o. 7

- Kontabilitatea eta paperreria nihaurek egin
- Etxaldea kudeatu PAC laguntzak konduan hartuz
- Ene egoeraren hobetzeko bideak xekatu eta landu
- Konduak informatikaz sartzeko tresna menperatu
- Nire etxaldea kudeatu reelean
- Sozietaren betebeharrak pikan ukan
- Trukaketa eta galderak
- Fiskal araudien aldaketak ezagutu

2. TRESNAK o. 7

- Informatika, internet eta meilen erabiltzen ikasi
- Excel-ekin behar dutan aplikazione bat sortu

3. ENPRESAREN BIZIA o. 8

- Sozietate bat sortu
- Patzuer baten elkartetik jalitzea prestatu
- Hautu egokiagoak egin asurantzak ulertuz
- Bikotekidearekin lotzen nauen kontratua hautatu

4. PROIEKTU BERRI BAT o. 8

- Kolektibo baten sortzea / biziartztea
- Xede berri baten egingarritasuna landu
- Biologikorat pasa nahi dut
- Turismo aktibitate bat plantatu etxaldean
- Fotovoltaiko xede batean engaiatu

5. LANA KUDEATU o. 9

- Norberaren administratibo lanak antolatu
- Langile bat hartu
- Laneko akidura, nekezia tipitu
- Etxaldeko arrisku profesionalak ezagutu
- Langile baten hartzeko desmartzak menperatu
- Etxaldeko langileak asuratu

6. GOSTA SARIAK o. 9

- Ekoizpen gosta-saria kalkulatu
- Ekoizpen gastuak kalkulatu bio baratzegintza anitzan
- Hegaztien gosta sariak kalkulatu

7. ERRETRETA ETA TRANSMIZIOA o. 10

- Erretreta : aintzinetik nola prestatu
- Transmisioa hobeki prestatzeko
- Erretretan ene dretxoak ulertu
- Prestatu etxe-arrañamenduen egitera

8. IKUSPEGI OROKORRA o. 10

- Harremana hobetu, hitza hartzea aisetu
- Etxaldearen sistema hobetzeko gogoetatu
- Klima aldaketaren ondorioei aurre egin
- Laborari ofizioaz arto izan

HAZKUNTZA

1. KABALEN OSASUNA o. 11

- Bere hazkurri osagarriak egin landareetan oinarrituz
- Osteopatia erabiltze ezagutu
- Osteopatia erabiltze hobetu
- Kimuterapiari esker animalien ongi izaitea hobetu
- Geobiologia ikasten hasi hazkuntzan
- Animale kinesiologia erabiltze ezagutu
- Hazkuntzan egiten den akupuntura deskubritu
- Uraren garrantzia eta edangarritasuna ulertu

2. HEGAZTIAK ETA TXERRIAK o. 12

- Hegazti atelier bat bideratu biologikoan
- Palmipedo gizenen atelier bat eraman kanpoan
- Mikrobiomen ekosistema kudeatu hazkuntzan
- Kanpoko xerri hazkuntza bideratu biologikoan

3. BEHI ARDI AHUNTZ o. 12-13

- Obsalim metodoaren ezagutzaren egitea
- Parasitismoaren kudeaketa ikasi
- Hobetu zure parasitismoaren kudeaketa
- Imunitatea azkartu
- Autopsia hasi ikasten
- Ekosistemaren ezagutzari esker hazkuntzaren osasuna ulertu
- Taldearen izaera eta gizaki animalien erlazioa ezagutu
- Gizaki eta animalia arteko harremana hobetu
- Behien manipulazioa

4. IKUSPEGI OROKORRA o. 13

- Zaldi eta astoen parasitismoa kudeatu
- Artzain zakurra heztea

5. ERLEZAINA o. 13

- Erlategia biologikoan gidatzea

BIODINAMIA o. 13

- Ilargiaren egutegia ulertu eta erabili
- Uraren erabilpenari buruzko printzipio nagusiak ezagutu
- Biodinamiari inimizioa

AURKIBIDEA

LURLANTZE

1. LURRA o. 14

- Lurzoroaren ezagutzea eta bere gidaritza egokitzea
- Zure lurra analisatu bertan diren landare adierazleer esker
- Animaleen trakzioa deskubritu zaldiekin
- Lurzoroaren ezagutzea eta pentzeetako praktiken egokitzea
- Zaldiekilako trakzioa hobetu

2. SOROAK ETA ZEREALAK o.14

- Zerealak ereineta, bilan bat egin
- Udaberriko laboreen belarreztatzearen kudeatzea laborantza biologikoan
- Etxaldearen herriko artoaren lantzea
- Herriko garria erein eta balorizatu

3. ARAUBIDEAK o.15

- CertiPhyto berritzea

4. MAHASTIGINTZA o.15

- Mahastiari egokia den tresnak eraiki
- Eritasunak eta mamutxak kudeatu biologikoan
- Fitoterapiaren eta biodinamiaren ezagutzea
- "Poussard" moztearen ezagutzea
- Bere lurzoroa ezagutu
- Bere lainoztagailuaren doitu
- Arno biologikoen egiteko prozesuaren hobetu

5. BARATZEGINTZA o. 16

- Lurzoroaren ezagutzea eta teknika agronomikoen menperatzea
- Kontserbatzen diren barazkiak ekoiztu kanpoan
- Kanpoko eta berotegiko barazkien gidatzeko ibilbide teknikoen hobetzea
- Materiala motorizatua erosi eta zaindu
- Ureztatzea optimizatu
- Belartzea kudeatu
- Laneko ergonomiaren hobetzea
- Barazkiak ekoiztu udan
- Zaldiekin trakzio animalia egin
- Sendabelar eta landare aromatikoak erein eta saldu
- Landareak ekoiztu

6. FRUITUGINTZA o. 17

- Hazidun eta hezurdunak diren fruitu arbol gazteak segitu
- Sagarrondo, udarondo eta aranondoen neguko mozteak ezagutu
- Sagarrondoen segipen eta mozkiatzea
- Bakantzea eta mozteak fruitu hazidun eta hezurdun arboletan
- Zuhaitz fruitudunen xertatzea
- Fruitu hazidun eta hezurdun arboletan txertatzea ezagutu
- Eritasun eta suntsitzailak kudeatu biologikoan
- Fruitu ttipien segitzea biologikoan
- Fruitudunentza praktika alternatiboak ezagutu

BESTELAKATZE

1. ARAUDIAK ETA HIGIENA o.18

- Araudi sanitarioak aplikatzen jakin ekoizpenen bestelakatzeko tailerretan

2. ESNEKIAK o. 18-19

- Gasna gurinak egiten ikasi
- Gasna gurinen egiteko teknologia antolatu eta hobetu
- Pasta prentsatuaren teknologia hobetu
- Gasna laktikoen teknologia eta esneki freskoen egiten ikasi
- Gasna laktikoen teknologia eta lan denbora hobetu
- Gasna irunduak eta gasura egitea menperatu
- Gasna urdinen teknologia ezagutu
- Gasnen ontzea menperatu
- Gasnatzeko altxagarrien menperatu
- Izozki egiten ikasi
- Deitzeko tresneria ezagutu eta kontrolatzen jakin esnearen kalitatea bermatzeko gisan
- Gasna eta esneki saileko higiena (GBPH)
- Gasnategiko garbitasun eta segurtasunari buruzko ezagutzak eguneratu

3. HARAGIA ETA XERRIKIAK o. 20

- Haragi saileko higiena formakuntza
- Autoklaben higiene araudiak ezagutu
- Autoklaba : presioko tresnen erabiltze agiria
- Bidoltskia, ardikia, pittika haragia mozten ikasi
- Haragia xukatua, zozizona egiten ikasi
- Xerriki haragi xukatuan bestelakatu
- Aierik gabeko teknika menperatzea
- Tenperatura apaleko egosketaren bidez eraldatu

4. BARAZKIAK ETA FRUITUAK o. 21

- Etxaldeko fruituak bestelakatzeko ikasi
- Etxaldeko barazkiak bestelakatzeko ikasi
- Gaztainen balorizatu
- Sagar jusak eta sagarnoak egiten ikasi
- Baratze irakidura teknika menperatzea
- Fruitu eta baratzki idortzea ezagutu
- Gozoki egiteko teknikak menperatu
- Eztia bestelakatzeko errezetak ezagutu

SALMENTA

1. SALMENTA o. 22-23

- Salmentaren oinarriak ezagutu
- Merkatu ikerketa bat egin
- Ene saltzeko moldeak aztertu
- Salmenta solasa menperatu
- Etxaldeko saltokia antolatu eta apaindu
- Merkatuetan saldu
- Profesionalekin lan egitea
- Produktu biologikoak jantegi kolektiboetan saldu
- Label ugarien eta ingurumen agiriaren arteko ezberdintasunak ulertu
- Fakturazioa informatizatu
- Kliente fixierra kudeatu eta fidelizazioa landu
- Xuxenezko salmentak segitzeko kutxa nola atxiki

2. KOMUNIKAZIOA o.23

- Facebook / Instagram orrialde bat sortzen ikasi
- Facebook / Instagram orrialdeak animatzen ikasi
- Canva tresna erabiltzen ikasi
- Webgune bat sortu dohainik
- Salmenta webgunea sortu dohainik
- Ene etiketak egin
- Newsletter baten dohainik igortzea

PLANTATZEA

Xehetasunak eta izena emaitako :

Salbuespena aparte orrialde honetako formakuntzen antolatzailea da :



Emeline Ganis - Laborantza sortzaile ibilbidea
06 74 85 69 74 - trebatu.spc@outlook.com
Kattalin Sainte Marie - Laborantza trebagunea
06 49 43 49 42 - trebatu@outlook.com

Egunak eta egitarauak hilabetero eguneratuak :
arrapitz.eus-en

LABORANTXA MUNDUA EZAGUTU

2022 urte huntan proposatzen den formakuntza berria da, Euskal Herriko etxaldeekin hitzarturiko ikastaldiak egiteko ahalmena emaiten duena. Egun tematikoak proposatuak dira (laborarien lekukotasunak, etxaldeen bisitak, kanpoko hizlariak...)

Nori zuzendua : instalazio proiektu bat abiatu aintzin, laborantza mundua eta laborari ofizioa hobeki ezagutu nahi duteneri

Iraupena : 4 hilabete, 2022ko lehen trimestroan hasiz

Xehetasunak : TREBATU - 06 74 85 69 74 - trebatu.spc@outlook.com

LABORANTZA SORTZAILE IBILBIDEA

Trebatuk 2020 urtetik bideratzen duen dispositiboa da, proiektu eramaileer gaitasunak garatzeko aukera emaiten die etxaldeen imersio ikastaldiak eginez. Teknika eta kudeaketa gaitasunak hobetzeaz gain, lurraldeko laborari sarea integratzeko ahala emaiten dio ikasleeri.

Formakuntzaren mamia :

- Formatzaile diren laborariekin ikastaldiak : bakoitzak 2 eta 4 etxalderen artean atxeman behar ditu 12 hilabetez ikastaldiak egiteko, guttienez 3 egunez astean.
- Formakuntza tematiko eta kolektiboak ere antolatuak dira (hilabetero ikasleak elkartzen dira gai baten inguruan formatzeko (salmenta, proiektuaren hein ekonomikoa, lur xekatze...). TREBATU-ren partaide diren barneko edo kanpoko egiturek animaturik.
- Laguntza pertsonalizatua eta adaptatua : Laborari tutore bat edo animatzaileak tutore dituzte, lekuko talde batek segitzen ditu, Trebatu-ren laguntza eskuratzen dute.

Nori zuzendua : Euskal herrian instalazio proiektu bat abiatua duteneri, laborantza mailako titulua eta garatu nahi duten ekoizpenaren ezagutza ona duteneri.

Iraupena : 12 hilabete, 2022ko udazkenean hasiz

Xehetasunak : TREBATU - 06 74 85 69 74 - trebatu.spc@outlook.com

FORMATZEN SEGITU BEREN PROIEKTUA EGIATZKO BALDINTZETAN ENTSEATUZ (LABORANTZA TREBAGUNEA)

Laborantzako Trebaguneak proiektu eramaileer beren proiektua egiazko baldintzetan entseatzea ahalbidetzen die, CAPE legezko kontratuaren bidez.

Helburua da beren instalatzeko gogoia baieztatu edo berriki dezan. Proiektua entseaten dute teknikoki, ekonomikoki, humanoki, fisikoki, baita antolaketari begira ere, TREBATU-k lagundurik.

Zuen proiektua entseatu nahi duzue ?

Nori zuzendua : Euskal herrian instalazio proiektu bat abiatua duteneri, laborantza mailako titulua eta garatu nahi duten ekoizpenaren ezagutza ona duteneri. Proiektua abiatzeko gutienezko diru zama bat duteneri eta diru laguntzak eskuratzen dituzteneri (RSA, ARE, lan partziala...)

Iraupena : 1-3 urte

Xehetasunak : TREBATU - 06 49 43 49 42 - trebatu@outlook.com

BIHARKO LABORARIEN SUSTENGATZEKO TUTORE FUNTZIOA SEGURTATU

- Tutorearen egin beharra eta funtzioa, tutoregatzaren erronka laborantza munduarentzat, esperientzia trukaketa eta beharren ezagutza
- Ikaslearekin harremanak garatu
- Gaitasun eta jakitatearen ezagutaraztea antolatu eta planifikatu

Nor : Emeline GANIS, Trebatu-ko animatzailea

Noiz eta nun : 2 egun erdi

Xehetasunak : TREBATU - 06 74 85 69 74 - trebatu.spc@outlook.com

NORBERE PLANTATZEA PENTSATU DJA DOZIERRA EGITERA JOAN AITZIN

- Proiektua zehaztu eta egingarri den landu
- Bigarren plan bat karkulatu sekula ez balitz gero nahi bezala pasatzen
- Argitu norberarentzat zer den garantzitsuena, horren arabera baitira deliberoak hartzen ondotik
- Sozietateetan, lantzen da ere : harremana, elgar behatzen jakitea, proiektu komunaren muntatzea, desmarxa bereziak

Nor : AFOGeko animatzailea

Noiz eta nun : 1.5-3 egun artean, lekua finkatzeko

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

ZURE LANBIDEA BIZIAN ZEHAR

1 KONDUAK, KUDEANTZA, PAC & FISKALITATEA



PREMIAZKO IBILBIDEA OINARRIZKO TALDEETAN ERAMAITEN DEN FORMAKUNTZA JARRAIKIA

NERE KONTABILITATEA ETA PAPERRERIA NIHAUREK EGIN ZERTAN NAIZEN ULERTZEKO

- Etxaldearen finantzien egoera ezagutzeko tresnak (faktura-zioa, kondu kaxiera, ...)
- Deklarazioe administratioboak
- Urteroko finantza legeen berri hartu
- Plantatu berrien segipena (lehen 5 urteak)

ETXALDEA KUDEATU PAC LAGUNTZAK KONDUTAN HARTUZ

- PAC deklarazioa segurtatu
- Kontrolak prestatu
- Kontestua eta hunen gora beherak ulertu ene estrategian kondutan hartzeko

ENE EGOERAREN HOBETZEKO BIDEAK XEKATU ETA LANDU

- Egoera ekonomikoa
- Posible diren aldaketak
- Xifratu, bisitak egin
- Emaizaren analisia

KONDUAK INFORMATIKAZ SARTZEKO TRESNA MENPERATU

- Basekund : azken fiskal araudia errespetatzen duen programa informatikoa (fakturen sartzeta eta konduen bukatzea) eskutan hartzea
- Urteko konduak araudiaren barne egiteko.

FISKAL ARAUDIEN ALDAKETAK EZAZGUTU

- Araudi fiskal, sozial, juridiko, ekonomikoak, ...
- Desmartxak

Nor : AFOGeko animatzailea eta konduen esperta

Noiz eta nun : egun erdi bat, 2022ko otsailean, Izuran

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

Xehetasunak eta izena emaitako :

Orrialde honetako formakuntzen antolatzailea da :



AFOG
05 24 34 80 10
afog.eh@wanadoo.fr

Egunak eta egitarauak hilabetero eguneratuak :
arrapitz.eus-en

NIRE ETXALDEA KUDEATU REELEAN

- Reelean zer obligazioe berri ?
- Hautu estrategiko ? Nola egin ?
- Zein ondorio epe luzean ?

SOZIETEAREN BETEBEHARRAK PIKOAN UKAN

- Kontrolatu puntuak eta hauen baieztatzea
- GAECeko biltzar nagusiak eta hauen frogak
- Urteko irabaziaren partekatzea eta CCA-k segitu

TRUKAKETA ETA GALDERAK

- Galde bereziak eta kezak
- Questions par rapport aux évolutions du métier

Nor : AFOGeko animatzailea eta konduen esperta

Noiz eta nun : 6-8 bilkura urritik ekainera etxaldetik hurbil

Baldintzak : AFOGeko kidea izan

Xehetasunak eta izena emaitako :



05 24 34 80 10
afog.eh@wanadoo.fr

2 TRESNAK

INFORMATIKA, INTERNET ETA MEILEN ERABILTZEN IKASI

- Oinarriak eta lehen urratsak, ordenagailuak eskeintzen dituen tresnak : mail-ak, internet, deklarazioeak (TVA, MSA...), kalkulu taulak...

Noiz eta nun : 0,5-1 egun artean, lekua finkatzekoa

Nor : AFOGeko animatzailea

EXCEL-EKIN BEHAR DUTAN APLIKAZIONE BAT SORTU

- Datuen enregiratzea
- Erabiltzea erresteko kalkulu orrialde bat eraiki

Noiz eta nun : 0,5-1 egun artean, lekua finkatzekoa

Nor : AFOGeko animatzailea

ZURE LANBIDEA BIZIAN ZEHAR

Xehetasunak eta izena emaitako :

Salbuespena aparte orrialde honetako formakuntzen antolatzailea da :



AFOG
05 24 34 80 10
afog.eh@wanadoo.fr

Egunak eta egitarauak hilabetero eguneratuak :
arrapitz.eus-en

3 ENPRESAREN BIZIA

GAEC, EARL, SCEA, SAS, SARL FOTOVOLTAIKOA SOZIETATE BAT SORTU

- Elgarrekin jartzeko proiektua eta fundamentuak finkatu
- Jendeen arteko harremana biziartztea landu
- Proiektuaren funtsaren arabera juridiko kuskua hautatu
- Proiektua egingarri den ikusi (errentagarri eta bizigarri denez)
- Plantatzen diren gazteekin, etxaldearen kudeantzen ezagutzaz jabetzeko modulua

Nor : AFOGeko animatzailea

Noiz eta nun : 1.5-3 egun artean, lekua finkatzekoa

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

PATZUER BATEN ELKARTETIK JALITZEA PRESTATU

- Jalitzen denaren dretsoak, saria kalkulatu
- Etxaldeak nola kudeatu aldaketen ondotik
- Etxaldeak nola segitu : proiektua berlandu
- Opzioe desberdinak eta bakotsaren ondorioak

Nor : AFOGeko animatzailea eta kanpoko mintzalari bat behar-rorden arabera

Noiz eta nun : 1-3 egun artean ekainetik urrira, lekua finkatzekoa

Baldintzak : sozietate batean izaitea

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

HAUTU EGOKIAGOAK EGIN ASURANTZAK ULERTUZ

- Ene asurantzak kontratuak ulertu
- Pagatzen dituztan garantiei buruzko argipenak
- Etxaldeari lotu berezitasunen arreta puntuak

Nor : asegurantzako esperta independentea

Noiz eta nun : eguna eta lekua finkatzekoak

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

BIKOTEKIDAREKIN LOTZEN NAUEN KONTRATUA HAUTATU

- Bizilagunaren, haurren eta ontasunaren zaintzeko moldeak

Nor : notario edo jurista

Noiz eta nun : egun erdi bat, ekainetik urrira

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

4 PROIEKTU BERRI BAT

DIBERTSIFIKAZIO, ERALDAKETA EDO/ETA SALTZEKO KOLEKTIBO BATEN SORTZEA / BIZIARAZTEA

- Taldea egin
- Proiektu komuna argitu eta adostu
- Egingarritasun ekonomiko, komertzial eta humanoa landu
- Proiektua errentagarri eta bizigarri den landu
- Proiektua abiatzeko plangintza finkatu

Nor : AFOGeko animatzailea, EHEEko animatzailea eta kanpoko mintzalari bat behar-rorden arabera

Noiz eta nun : 2-5 egun artean, ekainetik urrira

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

XEDE BERRI BATEN EGINGARRITASUNA LANDU

- Etxaldearen gaurko egoera pausatu
- Xede berriaren abantaila eta enegua argitu
- Pista berrien egingarritasuna xeheki landu

Noiz eta nun : 1.5-3 egun artean, ekainetik urrira

Nor : AFOGeko animatzailea

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

BIOLOGIKORAT PASA NAHI DUT, PROIEKTUA ONDU TALDE BATEAN (ARDIAK ETA BEHIAK)

- Biologikoan plantatzearen arau berezien itzulia egin
- Gaurko egoera eta heldu beharreko lekura arteko artekaren neurtzea : ze aldaketa egin beharko dugu heltzeko nahi den lekuraino
- Duela 5 edo 10 urte bide hori egin duten laborariekin elkartrukea : pasaia nekezak ikusi, zer plantatzen ahal den gaurtik ikusi
- Egingarritasun ekonomikoaren itzulia egin

Nor : AFOGeko animatzailea eta BLEko animatzailea

Noiz eta nun : 3 egun, lekua finkatzekoa

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

TURISMO AKTIBITATE BAT PLANTATU ETXALDEAN

- Ondorio fiskal, sozial, juridiko, ekonomikoak, ...
- Desmarta bereziak ezagutu

Nor : Alain CLUZEL, kontable esperta

Noiz eta nun : egun erdi bat Izuran

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

FOTOVOLTAIKO XEDE BATEAN ENGAITU

- Kontratu bat sinatu aitzin egin beharreko hautu juridiko, fiskal eta sozialak, ondorioak eta desmartzak ulertuz

Nor : AFOGeko animatzailea eta kanpoko mintzalari

Noiz eta nun : egun erdi bat hiru hilabetero, lekua izen emaiten arabera

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

ZURE LANBIDEA BIZIAN ZEHAR

5 LANA KUDEATU

NORBERAREN ADMINISTRATIBO LANAK ANTOLATU

- Urteko administratibo lan guzien panorama ikusi
- Araberako tresnak eta laneko moldeak plantatu, bizia errexteko gisan

Nor : AFOGeko animatzailea

Noiz eta nun : 1-1,5 egun artean, ekainetik urrira

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

LANGILE BAT HARTU

- 1. urratsa : lege betebeharrak, enplegatzailer talde batekin enplegatu, zoin langile da egokiena ene kasuan, etxaldea berrantolatu langilearen efikazitatearentzat eta lanaren bizikortasunarentzat, nagusi eta langile arteko harremana
- 2. urratsa : irrisiku profesionalen ebaluazioa, etxaldeko irrisikuak, irrisiku agiria (DU) eraiki

Nor : Fiskal eta sozial mailako expertak, Groupement d'Employeur-ei buruzko aditua, MSA, esperientziadun laborariak, AFOG-eko animatzailea

Noiz eta nun : 1. urratsa : 2.5 egun; 2. urratsa : 2 egun

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

LANEKO AKIDURA, NEKEZIA TIPITU

- Bakotxaren egoeran arazoak nun diren argitu
- Ergonomo batekin aterabideak bilatu
- Zer obratu bere etxean ikusi eta egingarri den landu (gosta, laguntzak, ...)

Nor : AFOGeko animatzailea eta ergonomo bat

Noiz eta nun : 2,5 egun, lekua finkatzekoa

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

ETXALDE BATEAN IZAN DAITEZKEN ARRISKU PROFESIONALAK EZAGUTU

- Derrigorrezkoa enplegatzailer diren etxaldeentzat (langile, sasoilari, aprendiz...)
- Arriskuak ezagutu eta saihesten jakin (osagarri, juridiko, ekonomiko arloan), eta lan kodigoko osagarri eta sekuritate mailako arauak jakin
- Arrisku profesionalak ebaluatu : alde juridikoa. Bete behar diren dokumentuak araudietan zuzen izateko
- Istripu arriskuak ttipitzeko prebentziorako tresnak atxemaiten edo trukutzen jakin

Nor : Aline TOUZET, MSA Sud Aquitaine

Noiz eta nun : 2 egun, lekua finkatzekoa

Xehetasunak : TREBATU - 06 74 85 69 74 - trebatu.spc@outlook.com

LANGILE BATEN HARTZEKO DESMARTXAK MENPERATU

- Aitzinetik egin beharrak : mutuela, prevoyantza, kontratua
- Hilabeteroko egin beharrak (paga agiria, ...)
- Kontratua finitzeko egin beharrak (kontu guzien solda, ...)

Nor : AFOGeko animatzailea

Noiz eta nun : egun erdi bat, 3 hilabetetan behin

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

ETXALDEKO LANGILEAK ASURATU

- Familia, bizilagunak, bolondresak, ...

Nor : MSAko teknikaria eta aseguru pribatua

Noiz eta nun : egun erdi bat, lekua finkatzekoa

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

6 GOSTA SARIAK

EKOIZPEN GOSTA-SARIA KALKULATU : SALMENTA ZUZENA EDO SALMENTA BITARTEKARI BIDEZ

- Ekoizpen gostuak kalkulatu
- Gosturengan eragiteko dituztan aukerak : barne sistema aldatu, sal prezioak berrikusi...

Nor : AFOGeko animatzailea

Noiz eta nun : 1-2 egun artean, ekainetik urrira, lekua finkatzekoa

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

EKOIZPEN GASTUAK KALKULATU BIO BARATZEGINTZA ANITZAN

- Etxaldeko ekoizpen gastuen kalkulatzeko metodoa (instalazioa aitzin ere)
- Análisis kolektiboa
- Etxaldean estrategien análisis

Nor : Guillaume DUHA, GAB 32-ko animatzailea

Noiz eta nun : 2022ko urtarrilean edo ostailan, Izuran

Xehetasunak : B.L.E. - 06 27 13 32 31 - ble.maria.brykalska@gmail.com

HEGAZTIEN GOSTA SARIAK KALKULATU

- Hegaztien salmenta prezioa eskutan hartu
- Hegaztien salmenta prezioa finkatzeko mekanismoak ulertu
- Etxaldean autonomia berreskuratu

Nor : Richard LAIZEAU, laborari eta formatzailea

Noiz eta nun : 2022-2023ko neguan

Xehetasunak : B.L.E. - 06 27 13 32 34- ble.marlene.aucante@gmail.com

ZURE LANBIDEA BIZIAN ZEHAR

Xehetasunak eta izena emateko :

Salbuespena aparte orrialde honetako formakuntzen antolatzailea da :



AFOG
05 24 34 80 10
afog.eh@wanadoo.fr

Egunak eta egitarauak hilabetero eguneratuak :
arrapitz.eus-en

8

IKUSPEGI OROKORRA

HARREMANA HOBETU, HITZA HARTZEA AISETU...

- Oinarrizko ezagutza batzu eta bakotsaren esperientziak
- Harremana eta komunikazioaren dimentsio desberdinak landu
- Trukaketa aberasgarriak errestitu eta ez mugatu

Nor : AFOGeko animatzailea

Noiz eta nun : 2 egun, lekua finkatzekoa

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

ETXALDEAREN SISTEMA HOBETZEKO GOGOETATU

- Ekoizpen berdineko laborari talde batean esperientzi trukatzekoa, egin molde desberdinen ezagutzea, ..
- Lana eta inbestizamendu berri baten arteko oreka neurtu
- Gauzen kanbiatzerat eremaiten nauen problema edo emeia segituz aterabideak bilatu, ondoriak xifratu, planifikatu

Nor : AFOGeko animatzailea, laborariak

Noiz eta nun : 2-4 egun artean, lekua finkatzekoa

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

KLIMA ALDAKETAREN ONDORIOEI AURRE EGIN

- Klimaren efektuak ene etxaldean eta ene alderantziz
- Egokitze eta aldaketa aukerak
- Autonomia eta energia ekonomiak, autoekoizpena...
- Irabaziaren segurtatzeko aterabideak

Nor : AFOGeko animatzailea eta kanpoko mintzalaria

Noiz eta nun : 2,5 egun, lekua finkatzekoa

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

LABORARI OFIZIOAZ ARRO IZAN

- Kanpoko oharrak eta ofizioari loturiko lotsa edo minak
- Ene ofizioaren onurak
- Aterabideak edo obrabideak

Nor : AFOGeko animatzailea eta kanpoko mintzalaria

Noiz eta nun : 2,5 egun, lekua finkatzekoa

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

7 ERRETRETA ETA TRANSMIZIOA

Familian ala familiatik kanpo transmisioa momentu garrantzitsu bat da: pertsona ezagutzeko, ezagutzak transmititzeko, ikuspegi eta teknika mailako arazoak konpontzeko denbora hartu nahi dugua.

Zuen etxaldean **iraupen laburreko trebagune bat** (1-3 urte) lekuan emateak transmisioa prestatzeko posibilitatea emaiten ahal duzue, gehiegi engaiatu gabe.

Aitzin, **Laborantza Sortzaile Ibilbideak**, ikastaro baten bidez zuen etxaldean proiektu eramaile bati ongi etorria egitea ahalbidetzen dizue.

Xehetasun gehiagorentzat, harremanetan sartu Trebatu-rekin 06 49 43 49 42ra deituz (Kattalin Sainte Marie) edo emailaz trebatu@outlook.com

ERRETRETA : AINTZINETIK NOLA PRESTATU

- Ene bizi eta proiektu berriak, erretreta paguen kalkulua, familiko arranimamenduen
- Etxaldearen etorkizuna eta pribatuena (lurra, etxea, ...)

Nor : AFOGeko animatzailea, MSAko langilea, notarioa

Noiz eta nun : 2 egun, ekainetik urrira, lekua finkatzekoa

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

ETXALDEA BESTE BATEN ESKU UZTEA : GOGOETATU, TRANSMISIOA HOBEBI PRESTATZEKO...

- Norberaren gogoetak eta ardurak
- Etxaldearen transmitigarritasuna, egokitzeko, moldatzeko errestasun edo zailtasuna...
- Hartzalea bat sekatu

Nor : AFOGeko animatzailea eta kanpoko mintzalaria

Noiz eta nun : 1-2 egun artean, lekua finkatzekoa

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

ERRETRETAN ENE DRETXOAK ULERTU

- Erretreta paguen kalkulua : zer, nola ene kasuan
- Erretretan ze lanen egiteko dretxoak, ze baldintzetan

Nor : AFOGeko animatzailea eta MSAko langilea

Noiz eta nun : egun erdi bat, uztailatik urrira

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

PRESTATU ETXE-ARRAÑAMENDUEN EGITERA

- Legea, beharrak eta usaiak ezagutu erabakiak hartzeko

Nor : AFOGeko animatzailea eta notarioa

Noiz eta nun : egun erdi bat, uztailatik urrira

Xehetasunak : AFOG - 05 24 34 80 10 - afog.eh@wanadoo.fr

HAZKUNTZA

Xehetasunak eta izena emaitako :

Orrialde honetako formakuntzen antolatzailea da :



B.L.E. - behi-ardi-ahuntz animatzailea :
ble.stella.delaunay@gmail.com - 06 27 13 32 36

B.L.E. - oilo-txerri-erle animatzailea :
ble.marlene.aucante@gmail.com - 06 27 13 32 34

Egunak eta egitarauak hilabetero eguneratuak :
arrapitz.eus-en

1 KABALEN OSASUNA

BERE HAZKURRI OSAGARRIAK EGIN LANDAREETAN OINARRITUZ

- Transformatuko diren landareak ezagutu
- Belar prestakinen oinarriak: osagai aktiboak eta disolbatzaileak
- Fabrikazioa : Nola ? Zerekin ? Nun atxeman ? Prezioa?
- Sendatzeko nahasketa batzu preparatu taldeka

Nor : Fanny DALLA BETTA sendabelar ekoizlea, Lise ROLLAND hazlea

Noiz eta nun : egun bat, 2022ko apirilean, Izuran

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

OSTEOPATIA ERABILTZE EZAGUTU

- Animaliaaren anatomia orokorraren ikuspegia
- Begi eta hunkitze erreperioak
- Osteopatiaren protokoloaren esplikazio eta praktika

Nor : Véronique ZENONI, marexal-osteopata

Noiz eta nun : 2022ko urtarrilaren 24 eta 25an, lekua finkatzekoa

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

OSTEOPATIA ERABILTZE HOBETU

- Erabakiak hartzea indibidual eta artaldean tratamenduetan
- Gorputz sentimenduak garatzea kabalen enpatiarekin
- Erabakiak hartzeko tresna desberdinen entseguak: testu kinesiologikoak, geobiologia, pendulua...
- Sentitu eta hitzez eman kabalak sentitzen duena

Nor : Véronique ZENONI, marexal-osteopata

Noiz eta nun : 2 egun, 2022ko apirilean

Baldintzak : 1. mailako formakuntzan parte hartu duzu, teoria eta praktika berrikusi dituzu

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

KIMUTERAPIARI ESKER ANIMALIEN ONGI-IZAITEA HOBETU

- Kimuterapiaren deskubritzea
- Inguruko zuhaitzekin kabalen osasuna hobetzea

Nor : Elodie STOLEAR, marexal osteopata, medikuntza naturala praktikatzen duena

Noiz eta nun : egun bat 2022ko apirilean

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

GEOBIOLOGIA IKASTEN HASI HAZKUNTZAN

- Elektromagnetiko nahasleak bultzatzen dituen faktoreak identifikatu zuen etxaldean
- Kabalen osasunaren gaineko kalteak neurtu
- Parte hartzaileak "sensiblearen" ikerketara hurbildu, eta arriskuen faktoreak neurtzeko tekniketara

Nor : Luc LEROY, geobiologo

Noiz eta nun : egun bat 2022ko udazkenean

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

ANIMALE KINESIOLOGIA ERABILTZE EZAGUTU

- Kinesiologiaren aurkezpena eta metodo hunen muskuluen testa
- Aurkeztutako ariketen praktika
- Kasu praktikoa formatzaileak eginik, eta laborariengandik ondotik

Nor : Lise CHANCRIN CASTELLI, kinesiologoa, Kheops

Noiz eta nun : 4 egun, udazkenean - neguan, Izuran

Baldintzak : hazlea izaitea (ardiak, ahuntzak, behiak, txerriak, ...)

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.marlene.aucante@gmail.com

HAZKUNTZAN EGITEN DEN AKUPUKTURA DESKUBRITU

- Akupunkturaren oinarri handiak
- Animalien gorputzan diren energia ibilbideak
- Praktikatzeko anatomia oinarriak
- Kabalen mina arindu, adibide konkretuak
- Hazkuntza batean praktika

Nor : Nayala CHERINO, marexala (baiezatzekoa)

Noiz eta nun : egun bat, 2022ko udazkenean

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

URAREN GARRANTZIA ETA EDANGARRITASUNA ULERTU HAZKUNTZA BATEAN

- Uraren berezitasunak eta inguramenean ondorioak
- Kabalen osasunean arriskuak eta uraren errola gorputza eta zeluletan
- Uraren kalitatearen irizpideak : araudia, analisiak, interpretazioa
- Uraren tratatzeko bideak : purifikazio eta dinamizazioa

Nor : Jérôme CROUZOUOLON, osasuna eta elikatze formatzailea

Noiz eta nun : egun bat, 2022ko irailaren 26 edo 27an

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

HAZKUNTZA

Xehetasunak eta izena emaitako :

Salbuespena aparte orrialde honetako formakuntzen antolatzailea da :



B.L.E. - behi-ardi-ahuntz animatzailea :
ble.stella.delaunay@gmail.com - 06 27 13 32 36

B.L.E. - oilo-txerri-erle animatzailea :
ble.marlene.aucante@gmail.com - 06 27 13 32 34

Egunak eta egitarauak hilabetero eguneratuak :
arrapitz.eus-en

3 BEHI-ARDI-AHUNTZ

OBSALIM METODOAREN EZAGUTZAREN EGITEA

- Ardiak, behiak, ahuntzak (galdearen arabera)
- Karta joko eta diagnostikoa
- Errazioen doitzea

Nor : Ekaitz MAZUSTA, Obsalim formatzailea

Noiz eta nun : egun bat 2022ko martxoan, lekua finkatzeko

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

PARASITISMOAREN KUDEAKETA IKASI

- Parasito nagusien zikloen ezagutzea eta funtzionamendua
- Osasun kontrol plano bat eraikitzea zure etxaldean parasitismoa hobekio kudeatzeko

Nor : Catherine ROFFET, marexala, GAB44

Noiz eta nun : egun bat 2022ko urrian, Baigorriko inguruan

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

HOBETU ZURE PARASITISMOAREN KUDEAKETA

- Zure pentzeen kudeaketa optimizatzea
- Antiparasitikoaren balaitzea hobetu
- Osasunaren praktika naturalak menperatzea zure artaldean immunitatea hobetzeko

Nor : Catherine ROFFET, marexala, GAB44

Noiz eta nun : egun bat 2022ko urrian, Baigorriko inguruan

Baldintzak : parasitismoari buruzko formakuntza bat segitua izan, edo gai honen inguruan lasai izan

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

IMUNITATEA AZKARTU - BEHI, ARDI, AHUNTZ

- Bere taldearen imunitatea ulertu
- Azkartu metodo alternatiboeri esker

Nor : Catherine ROFFET, marexala, GAB44

Noiz eta nun : egun bat, 2022ko apirilaren 12ko astean

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

AUTOPSIA HASI IKASTEN - BEHI, ARDI, AHUNTZ

- teknika lineario eta zorrotz bat deskubritu.
- Organoen ezagutzea jakin et zauriak identifikatzen jakin
- Bistarekin bilan parasitarioa egin

Nor : Catherine ROFFET, marexala, GAB44

Noiz eta nun : egun bat, 2022ko apirilaren 12ko astean

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

EKOSISTEMAREN EZAGUTZARI ESKER HAZKUNTZAREN OSASUNA ULERTU

- Mikroben munduaren aurkezpena et aniztasuna
- Bakterien erabilera, ekosistema eta osasuna
- Egunerokoan erabili.

Nor : Hubert HIRON, GIE Zone Verte-ko marexala

Noiz eta nun : egun bat, udazkenean

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

2 HEGAZTIAK ETA XERRIAK

HEGAZTI ATELIER BAT BIDERATU BIOLOGIKOAN (OILLO ETA OILASKO)

- Oinarri teknikoak eta hegazti hazkuntzan hobetzen ahal diren puntu nagusiak
- Osasun arriskuen prebentziorako neurriak.

Nor : Aurelie LELIEVRE, hegaztien marexala

Noiz eta nun : urtean zehar

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.marlene.aucante@gmail.com

PALMIPEDO GIZENEN ATELIER BAT ERAMAN KANPOAN (AHATE ETA ANTZARA)

- Elikadura
- Materialaren hautaketa
- Osasuna

Nor : Aurelie LELIEVRE, hegaztien marexala

Noiz eta nun : egun bat, 2022ko udaberrian

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.marlene.aucante@gmail.com

MIKROBIOMEN EKOSISTEMA KUDEATU OILO HAZKUNTZAN

- Hazkuntza guzian agertzen ahal den mundu mikrobiarraren aurkezpena
- Biofilmaren, hestearen eta animaleen osasunaren zoma
- Ekosistema orekan edo desorekan : bakterio eta beren ingurumenaren arteko lotura

Nor : Hubert HIRON, GIE Zone Verte-ko marexala

Noiz eta nun : egun bat, 2022ko udazkenean

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.marlene.aucante@gmail.com

KANPOKO XERRI HAZKUNTZA BIDERATU BIOLOGIKOAN - GIZENARAZTEA

- Kanpoan egoiten diren xerrien beharrak ezagutu
- Xerria gizenarazteko bidea eta sortzeak egiteko bidea
- Obserbaketa bultzatu prebentzioa eta antizipazioa egiteko

Nor : Denis FRIC marexala edota Christine MEYMERIT formatzailea

Noiz eta nun : urtean zehar

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.marlene.aucante@gmail.com

HAZKUNTZA

TALDEAREN IZAERA (BEHI-ARDI-AHUNTZ) ETA GIZAKI-ANIMALIAREN ERLAZIOA EZAGUTU

- Izaerak ulertu
- Bien aldetik, konfiantza eta segurtasuna hobetu
- Gizaki eta kabala arteko harremana sortu eta segitu, bere hiltzearaino lagundu.

Nor : Marie-Christine FAVE, marexala

Noiz eta nun : 2022ko apirilaren 7 eta 8an

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

GIZAKI ETA ANIMALI ARTEKO HARREMANA HOBETU ETA BEHIEN MANUKORTASUNA AZKARTU

- Gizaki eta Behien mundu sensorialen konparaketa
- Animalia hobeki ulertzeko postura eta arrabotsen identifikazioa
- Obserbazio tailerra : kabala eta ingurumenarekiko ikuspegi etologikoa
- Errextasun eta segurtasuna irabazteko protokoloa
- Aske den behi gazte baten hurbiltze positiboa

Nor : Pauline GARCIA, hazlea eta jokaera ikertzailea

Noiz eta nun : 2022 udazkenean (baieztatzea)

Xehetasunak : B.L.E. -06 27 13 32 36- ble.stella.delaunay@gmail.com

+ BEHIEN MANIPULAZIOA

5 IKUSPEGI OROKORRA

ZALDI ETA ASTOEN PARASITISMOA KUDEATU

- Parasito ezberdinak ezagutu, eta bere funtzionatzeko manera
